

# Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jelkideak XX. mendearen lehen herenean

Mikel Aizpuru Murua  
EHUko irakaslea, UEUko kidea

Legutianok berebiziko garrantzia du abertzaletasunaren sorrera argitzeko proposatu diren teoriak egiaztatzeko orduan. Izan ere, industrializazio azkarrak sorrarazitako krisiarekin lotzen da Euzko Alderdi Jeltzalearen agerpena. Arabako kasuan, aldiz, industrializazioaren eragina berandu gauzatu zen. Beraz, ulergarria izango litzateke abertzaletasunaren garapena lurralde honetan eskasa izatea. Badago, ordea, II. Errepublikaren hasieratik bereziki, abertzaletasuna bereganatu zuen herri arabarrak. Legutianokoa dugu horietako bat. Nola adieraz dezakegu gertaera hau?

Legutiano has a vital role when attempting to verify theories on the creation of the basque nationalism. In fact, the birth-appearance of the Basque National Party is related to the crisis created by the early industrialization of Biscaye. This is the contrary, in the case of the province of Alava, where industrialization came later. As a result, it is understandable that the development of nationalism in this territory was weaker. However, there does exist, from the second republic on, villages in Alava that met nationalism with open arms. Legutiano is one of them. How can we explain this fact?

## 1. Abertzaletasunaren sorrera

Legutianok, eta oro har, Arabako abertzaletasunaren kasuak, berebiziko garrantzia du mugimendu honen sorrera eta zabalkundea argitzeko proposatu diren teoriak egiaztatzeko orduan. Izan ere, gai honen inguruan idatzi duten gehienek Bizkaiko industrializazio azkarrak eta inmigrazioak sorrarazitako krisi kultural eta sozialarekin lotzen dute Sabino Aranak bultzatutako Euzko Alderdi Jeltzalearen agerpena garaiko Euskal Herriko bizitza politikoan. Arabako kasuan, aldiz, industrializazio horren eragina berandu gauzatu zen, eta ez zen bereziki garrantzitsua izan gaur egun arte. Beraz, ulergarria izango litzateke abertzaletasunaren garapena lurralde honetan eskasa izatea; eta hala izan zen une jakin batzuk kenduta, 1933ko hauteskundeetan, adibidez. Badago, ordea, II. Errepublikaren hasieratik bereziki, abertzaletasunaren aldarria entzun eta bereganatu zuen herri arabarrak. Legutianokoa dugu horietako bat. Nola adieraz dezakegu gertaera hau? Abertzaletasunaren hastapenetik garrantzi handia izan zuten bi elementuren eraginez. XIX. mendean euskal nortasuna defendatzen zuen literatura erromantiko-foruzaleari esker, eta Foruen abolizioak ekarri eta euskararen izatearekin estuki lotu zen porrot sentimenduari esker. Gainera, badugu gure inguruan azken talde honetako ordezkari nabarmena, Felipe Arrese-Beitia otxandiarra, haragin eta poeta aldi berean. Hizkuntzak garrantzi bikoitza du, hiztunek emandakoa eta sinbolikoa. Eta, nire ustez, faktore hau da Legutianoko abertzaletasunaren garrantzia azaltzen duen elementu nagusia, historikoki herri horretan foruzaleek izandako eragina ahaztu gabe. Ezin da ahaztu, bestalde, EAJ alderdi bat baino gehiago mugimendu bat zela, eta ideologia, joera, gizarte-talde eta jarduera desberdinak batzen zituela bere baitan.

## 2. Legutiano, XX. mendearen hasieran

Nolakoa zen garai hartako Legutiano? 1900. urtean Bilerlen 800 lagun inguru bizi ziren eta beste 600 inguruko herrixketan. XIX. mendetik aurrera biztanleria galtzen ari zen eremua genuen. Horrela, 1877an 2.000 biztanle baldin bazituen, 1900. urtean 1.436 ziren eta 1.217 baino ez 1930.ean. Zereginei dagokienez, biztanle gehienak nekazaritza eta abelazkuntzatik bizi ziren, nahiz eta mehategi txiki batzuk egon eta zenbait artisau. Errealitate hau agerian geratzen da Legutianoko 1931ko hauteskunde-errolako datuetan. Dena den, kontuan izan behar dugu erroldak hogeita bost urtetik gorako gizonezkoak baino ez zituela biltzen (Narbona, 1999):

### 1. Taula

Ogibideen Sailkapena	%
Ogibide liberalak	0,3
Merkatariak, artisauak	6,1
Erdi-mailako zuzendariak	1,8
Enplegatuak	0
Langileak	4,4
Nekazariak	80,3
Morroiak	4,9
Etxeko zerbitzariak	0,5
Apaiak, guardia zibilak	2,1

Herriak komunikazio ona zuen bai Gasteizekin, baita Bizkai eta Gipuzkoarekin ere autobusari eta trenari esker. Euskararen ezagutza dugu garaiko Legutianoren beste ezaugarri bat. Egoera ez zen, dena den, onena. Jakakortexarena apaizaren lekukotasunak ondo laburbiltzen ditu hiztunen ezaugarriak: «Naparraten zarrak ongi zekiten Euskera, gazteak aaztuxe zeukaten eta aurrak erderaz mintzatzen ziran».

### 3. Legutianoko abertzaletasunaren hastapenak

Arabako abertzaletasunaren antolaketa 1904an hasi zen *Sociedad Vasca* elkartearekin, nahiz eta erakunde hau ez izan zuzenean alderdi politiko abertzalea. 1907an ireki zen, aldiz, Gasteizko *Centro Vasco*. Gasteizko erakundea izango zen abertzaletasunaren hazia ereingo zuen gune garrantzitsuena. Bere eragina mugatua izan zen, dena den, eta Arabako iparraldera mugatu zen, hots lurralde euskaldun eta Bizkai eta Gipuzkoatik hurbilen zeudenetara. Legutianoko abertzaletasunari buruzko lehen berriak 1911koak ditugu. Urte horretako martxoaren bukaeran batzokia zabaldu omen zuten, gazte-talde batek bultzatuta. Eta urte bereko irailean Euskal Jaiak antolatu ziren Gasteizko Euzko Etxeako ezpatadantzari eta aureskulariekin. Baina ordurako ezagunak ziren abertzaletasunaren agerpenak sortutako ezinegonak. Legutianoko apaiza zen Serafín Ascasubik, sermoi batean EAJ ez zela katolikoa eta Araba beti izan zela espainola azaldu zuen<sup>1</sup>. Ez dugu garai honetako berri gehiagorik, ez eta batzokiaren bizitzari buruz ere, baina bai inguruko herriei dagokienez. Urtebete beranduago, 1912an, Aramaio batzokia ireki zuten 30 bazkiderekin, Domingo Etxeberriaren lehen-dakaritzapean eta bertan, antza, besteak beste, Legutiano, Otxandio, Gasteiz, Bilbo eta Gipuzkoako hainbat jeltzale bildu zen. Aramaio izan zen hurrengo urteetan abertzaletasun sendoena azaldu zuen herria, jaialdi eta hitzaldiak antolatuz, baina aldi berean, karlistekin istiluak burutuz. 1919ko otsailean, eztabaida politiko baten ondoren karlista batek abertzale bat hil zuen.

Garai horretako Legutianoko abertzaletasunaren egoera neurtzeko dugun tresna bakarra hauteskundeetako emaitzak ditugu. Arabako abertzaleen lehen parte-hartze orokorra 1913ko aldundirako hauteskundeetan izan zen. Gasteizko barrutian, Legutiano biltzen zuen horretan alegia, jeltzaleek Domingo Etxeberria aramaiarra, Luis Eleizalde bergarar gasteizartua eta Francisco Iturribarria urkabustaiztarra aurkeztu zituzten. Emaitzak kaskarrak izan ziren, Legutianon behintzat, 16 boto baino ez baitzituzten lortu. Datu hauek ikusirik, bost urte pasatu ziren abertzaleak berriro aurkeztu arte hauteskunde lehiara, 1918an hain zuzen, autonomiaren eskaeraren kanpaina erdian. Jeltzaleek Martin Asua karlista lagundu zuten Koalizio Katolikoaren izenean. Elkarlana, ordea, ez zen nahikoa izan Eduardo Dato monarkiko kontserbadoreari aurre egiteko eta azken honek 172 boto lortu zituen Asuaren 80 botoen aurrean. Emaitza eta karlisten jarrera ikusita, EAJk une horretatik aurrera hauteskundeetara bakarrik aurkeztuko zela erabaki zuen. Era berean, eta Gasteizko Euzko Gaztedijaren eskutik, propaganda-kanpaina bizia hasi zuen. Urtebete beranduago Luis Eleizalde aurkeztu zuten jeltzaleek Datorekin lehian. Kanpaina oso gogorra izan zen. Hona adibide bat: *La Libertad* egunkariaren esanetan, EAJ zera zen: «un partido de hambrientos que quieren adueñarse de la provincia de Alava, de la Diputación y de los ayuntamientos para

1. *Gipuzkoarra* 191, 1911.4.31, *Bizkaitarra*, 1911-4-1 eta 1911-9-2.

manejarlos a su antojo». Datok berriro irabazi zuen, baina boto-kopuruek abertzaletasunak Legutianon zuen indarra erakutsi zuten: Datok 122 bereganatu zituen eta Eleizaldeak 114. Bi urte beranduago, 1921ko aldundirako hauteskundeetan José Gabriel Guinea integristak 126 boto jaso zituenean, Antonio Vinós jeltzaleak 82 eta Sebastián Aranegui kontserbadoreak 75 bildu zituzten. Datu apur hauen ondorioak begibistakoak dira: abertzaletasuna, Legutianoko indar nagusia izan gabe, herritar askoren aukera politikoa zen ordurako, 1923an Primo de Rivera jeneralak Estatu-kolpea eman aurretik.

#### 4. Bigarren Errepublika

Are ezezagunagoak dira diktadura garaiko nondik norakoak. Aurreko urteetan Legutianoko bizitza politikoa urria baldin bazen, urte hauetan erabat desagertu zen. 1930eko martxoan, diktadura garaian osatutako udala berriro egin zen, eta urtebete beranduago, apirilaren 12rako udal hauteskundeak deitu ziren. Espainiar gobernuak hauteskunde hauek normaltasunera itzultzeko lehen urrats moduan planteatu bazituen ere, oposizioko indarrek erregetzaren inguruko erreferendum moduan hartu zuten, 1930eko abuztuaren 30ean Donostiako Ituna izenpetuz Errepublika lortzeko asmotan. Era honetan, Espainiako hiri nagusietan errepublikazaleek irabazi zuten, Alfonso XIII.ak erregetza utzi eta apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zen Espainian.

Ez dirudi Errepublikaren inguruko eztabaidak eragin handirik izan zuenik Legutianon. Ez behintzat, zinegotzien hautagai-zerrendak osatzeko orduan, ez eta hauteskunde-egunean ere. Bederatzi ziren bete beharreko hutsuneak eta 17 lagun aurkeztu ziren, batzuk bere burua aurkeztuz, eta beste batzuk zinegotzi ohien babesarekin. Azken hauen artean bi talde nabarmendu ziren: López de Arechaga eta Iribarren zinegotzi ohiek 6 izeneko zerrenda aurkeztu zuten; atxikimendu politikoa nabarmenik azaldu ez arren, karlismoaren inguruko kideak ziren. Gregorio Martelok eta Damian Iñurriak, berriz, lau izeneko zerrenda aurkeztu zuten, eta Martelok bere burua. Abertzaleak ziren azken zerrenda honetako kideak. Bazirudien, beraz, bi zerrenda genituela aurrez aurre. Baina hauteskunde-eguna helduta emaitzek bestelakoa erakusten digute. Legutianok barruti bakarra osatzen zuenez boto-emaitze bakoitzak 6 izen baino ezin zituen bozkatu; horren arabera, zerrenda batek 6 postu lortuko zituen eta galtzaileak 3. Ondoren azaltzen diren datuen arabera, ordea, ez zen horrelakorik gertatu<sup>2</sup>. Izan ere, boto gehien lortu zituztenen artean bi zerrendetako kideak daude. Badirudi, beraz, bi zerrenden arteko adostasuna zegoela hauteskunde-lehia mugatzeko eta talde bietako ordezkariak eramateko udaletxera. 292 boto-emaitetatik 235 lagun hurbildu ziren

2.

Iribarren, José		151
López de Arechaga, Alejandro		146
González de Audicana, Domingo		144
Arregui, Leandro	Abertzalea	134
Ortiz de Zárate, Domingo	Abertzalea	133
Martínez de Luco, Juan M <sup>a</sup>		130
Lasagabaster, Eduardo		72
Ugarte, Benito	Abertzalea	70
Viteri, Agapito	Abertzalea	70

mahaira botoa ematera. Emaidza ofizialen arabera, bederatzi zinegotzietatik lau abertzaleak ziren, bi monarkikoak eta hiru independenteak. Udaleko datuen arabera, dena den, hiru abertzale baino ez dira agertzen (Arregi, Ortiz de Zarate eta Ugarte) eta beste guztiak independente moduan agertzen dira (nahiz eta Agapito Viteri gero abertzale moduan azaldu). Ituna are nabarmenagoa dugu, hilaren 16an alkatea hautatetzeko orduan, Alejandro López de Arechagak zinegotzi guztien botoak jaso zituela kontuan hartuz gero. Gauza bera gertatu zen 22an Jose Iribarren lehen alkateorde izendatzeko; baina udaleko beste karguak hautatetzeko orduan zatiketa egon zen eta Leandro Arregi lehen zinegotzi abertzaleak udaleko bosgarren postua baino ez zuen eskuratu.

Errepublikaren etorrerak ez zuen, ditugun datuen arabera, Legutianoko bizitza gehiegi aztoratu. Zinegotziek egindako aipamen zuzen bakarra nola lortu bandera berria izan zen, eta lekukoaren arabera, herritik pasatutako errepublikarren karabana izan zen alaitasun edo poz une bakarra.

Bi izan ziren garaiko politikan nagusitu ziren gaiak, eta biek izan zuten beren eragina Legutianoko bizitzan: autonomiaren arazoak eta Eliza Katolikoaren estatusak. Lehenengoari dagokionez, udalaren jarrera nabarmena izan zen, Eusko Ikaskuntzak idatzi eta jeltzaleek eta karlistek bultzatutako autonomia-estatutuaren alde azaldu baitzen. Araba egitismo horretatik atera eta bide propioa jarraitzearen aurka azaldu zen udala behin eta berriz. Leandro Arregi jeltzalea izan zen une oro udalaren ordezkaria burututako batzar guztietan. Elizaren auziari dagokionez, Espainiako gobernuak Gasteizko gotzaina, Mateo Mujika gipuzkoarra, maiatzaren 18an kanporatu egin zuen Errepublikaren aurka hitz egiteagatik. Eta hiru egun geroago, Legutianoko apaiza zen Serafín Ascasubi atxilotu zuten Errepublikaren aurka hitz egiteagatik. Egun berean askatu zuten arren, isun larri bat, 500 pezetakoa, ordaindu behar izan zuen. Hilabete beranduago, ekainaren 28an, burutu ziren Gorteak osatzeko hauteskunde orokorrak. Guretzako aukera ona, gertakizun hauen aurrean Legutianoko biztanleen jarrera ikusteko.

Arabako egoerak, dena den, merezi du iruzkin txiki bat. Euskal Herriko beste lurraldeetan eskuineko taldeak (karlistak bereziki) eta jeltzaleak elkarrekin aurkeztu baziren ere, Araban José Luis Oriolen agerpenak jeltzaleen haserrea piztu zuen eta azken hauek beren hautagaia aurkeztea erabaki zuten, Pantaleón Ramírez de Olano kazetaria. Karlista eta jeltzaleen artean salaketa gogorak egin ziren. Bi izan ziren Arabako legebiltzarkidea izateko eserlekua lortu zutenak, Félix Susaeta errepublikazalea 8.513 botorekin, eta Oriol 8.016rekin; jeltzaleek, bestalde, 4.615 boto eskuratu zituzten. Ez zen emaitza txarra, dena den, mende hasierako datuekin parekatuz gero. Legutianoko emaitzak testuinguru horretan ulergarriak diren arren, ez datoz bat hain herri katolikoaren topikoarekin: Susaetak 145 boto bildu zituen, Ramírez de Olano abertzaleak 74 eta Oriol karlistak 60.

Maiz aipatu da Bigarren Errepublikak politika bizitzeko moduan aldaketa sakonak eragin zituela, eztabaida eta jarduera politikoa goi-mailako pertsonetatik jende arruntera eramanez. Gaur egun, funtsean onartu arren, ideia horri ñabardura bat baino gehiago egin zaio. Alde batetik, bizitza politikoaren gizarteratzea Berrezarkuntza garaiko fenomeno dugulako toki dexentetan, eta beste askotan Bigarren Errepublikan ez zutelako ezagutu ere egin. Legutianoren kasua, nire us-

tez, erdibidean kokatzen da. Horren adibide dugu karlistek herrian eragin nabaria eta aspaldikoa izanik ere, ez zutela beharrezko ikusi egoitza propioa irekitzea; edota errepublikazaleek 1931ko ekainaren 7an osatutako *Centro Republicano*-k joera desberdinetako kideak biltzea, Berrezarkuntzako kasinoen funtzioa mantenduz.

Alde horretatik, abertzaleak egoera hobean zeuden, Errepublika ezarri zenean egitura iraunkorra baitzuten herrian: Batzokia eta Uri Buru Batzarra. Batzokiko zuzendaritzaren kideak honako hauek ziren 1931ko apirilaren 23an: lehendakaria: Nicasio Garaigordobil, nekazaria ogibidez; lehendakariordea: Juan Martínez de Zuazo; idazkaria: Eugenio Azkunaga, elektrikaria; diruzaina: Tomás de Azcárate; mahaikoak: Isidro Bengoa nekazaria, Domingo Ruiz de Zárate eta Anastasio Iñurria nekazaria. Leandro Arregi, hau ere nekazaria, izan zen UBBko lehendakaria 1931n. 1935ean José Larrinoa dugu Arabako Erki Batzarrean Legutianoko ordezkaria. Legutianoko ordezkariak, Arabako zein EAJren Batzar Nagusietako partaideak izan ziren garai horretan egindako bilera ugaritan. Legutianoko jeltzaleen artean aurkitzen dira, baita ere Antonio Alustiza, Gregorio Martelo, José Fernández Larrínaga, Leoncio López de Aréchaga, José Ignacio Mues eta Joaquín Olaizola. Jeltzaleen antolaketak esparru berriak ere hartu zituen, 1932an Mendigoixale taldea sortuz eta baita Emakume Abertzale Batzarra. Aniztasun honek abertzaletasunaren indarra eta herrian hiriko ohiturek hartutako garrantzia adierazten dizkigu.

Honela laburbildu zuen Eugenio Azkunagak 1934an Legutianoko abertzaletasunaren egoera (Altabella, 1949):

En lo referente al estado del nacionalismo en este término municipal, no podemos menos de confesar que es bueno en la capital del Ayuntamiento, en Legutiano; no así en los pueblos restantes que componen el municipio, pues, desgraciadamente no ha prendido aún la semilla de JEL en la mayoría de los baserris.

Abertzaletasunaren hazkundera inguruko udaletara zabaldu zen. Aramaiokoa ezaguna dugu, baina Zuiako UBBa 1932an sortu zen, Gopegikoa 1933an eta Ulibarrikoa 1935ean. Zabalkundera, «el entusiasmo que todo lo vasco produce en la juventud» en ondorio omen zen *Euzkadi* egunkariaren esanetan. 1931 eta 1933 bitartean, batez ere, ekintza asko antolatu ziren Araban, Oleta, Birgara, Gopegi, Erentxun, Murgia, Aramaio, Zuhatsu, Baranbio eta Agurainen.

Berri idatziek ez digute gehiegi argitzen nolakoa zen eguneroko bizitza politikoa Legutianon, baina ez dut uste toki garrantzitsurik izango zuenik. Hala ere, 1933ko maiatzean muturrekoak izan ziren bertako abertzale eta errepublikazaleen artean, lehenek errepublikaren aurkako oihuak bota zituztela eta. Baina, ezin da ahaztu, garaiko bizitza politikoak askoz ere gertaera latzagoak bizi zituela, Legutinetik hain hurbil dagoen Bizkaiko lurraldean, adibidez.

Zeintzuk izan ziren ideia politiko berrien zabalkunde bideak? Lau dira garrantzitsuenak:

- 1) Gasteizko taldeen propaganda: ibilaldiak eta prentsa. Abertzaleen zereginen artean propagandak berebiziko tokia betetzen zuen. Astebukaera askotan ibilaldiak antolatzen zituzten egun pasa egiteaz gain, abertzaletasuna

zabaltzeko asmoarekin. Honez gain, erabilitako bitartekoen artean, aurretik beste toki batzuetan irakurritako aldizkari eta egunkari abertzale zaharren banaketa zegoen.

- 2) Herritik kanpo lan egiten zutenen eragina: Makina bat lagunek alde egin zuen Legutianotik Gasteizera, Bizkaira edo Gipuzkoara lan bila. Herrira itzultzen zirenean, asteburua pasatzera, gabonetan edota udan, bizitoki berrian bereganatutako pentsaera eta jarrera berriak zabaltzen zituzten.
- 3) Oporrak herrian pasatzen zituzten pertsonak: asko izan ez arren, bazegoen uda Legutianon igarotzen zuen familiarik. Jakakortexarena apaizak gogorarazten duenez, bazen, adibidez, Bilboko sendi abertzale txit aberats bat; eta noski, hauek ere zabalduko zuten beraien ideien berri herrian.
- 4) Herriko apaizak. Herriko elizgizonak bi taldetan banatuta zeuden: apaiz karlistak eta apolitikoak batetik: Bilerlekoa eta Elosukoa (1934tik aurrera aritu izan zena) eta abertzaleak bestetik: Nafarratekoa, Urbinakoa eta Bizkaiko Ubideakoa. Apaizen lan politikoak nabarmena izan behar zuen. Aipatu dugu 1911n Don Serafín Ascasubiren jarrera abertzaletasunaren aurka. Errepublikako urteetan bestelako jarrerakoak egon ziren Nafarraten eta Elosun (azken honetan 1934 arte):

Lo que se ha adelantado en el camino de la educación patriótica ha sido debido a la labor desarrollada por dos beneméritos sacerdotes patriotas: D. Domingo Jakakortajarena, de Nafarrate, y D. Pascasio Etxezarraga, de Elosu. Con la labor realizada por estos dos sacerdotes en beneficio de Dios y de la Patria y con las labores que se proponen realizar, augurábamos días felices para nuestra Causa.

Dena den, ideologia desberdinekoak egoteak ahuldu egingo zuen beren eragina.

Maiz nahastu dira, bestalde, apaiz batzuek euskararen alde egindako lana eta abertzaletasuna. Nafarrateko apaiza genuen Txomin Jakakortexarena gipuzkoar gaztea. Duela hamar urte kaleratutako bere autobiografian ondo asko azaltzen du bertan emandako bizitza eta lanak. Ehiztari eta arrantzale amorratua izateaz gain, euskalzale sutsua genuen Don Domingo. Nafarratera heldu orduko haurrei dotriña euskaraz emateari ekin zion, eta meza nagusiko hitzaldiak ere euskaraz: «urte erdirako euskeraz bakarrik euren artean mintzatzera oitu nituan». Betolatzako haurrekin gauza bera egiten saiatu zen. Nekazarien egoera latza ere ezagutzen zuen, eta maiz haiekin batera lan egin zuen. Eskolako irakaslea ere izan zen, eta haurrei txistuak ekarri eta “aberri abestiak” erakusten zizkien.

Autonomiaren auzia 1933an indartu zen Euskal Estatutuaren inguruko erreferendumarekin. Legutianon aldeko jarrera nabarmena gailendu zen: 694 boto-emaitetatik 453 alde agertu ziren eta 26 aurka, eta 216 lagun abstenitu ziren. Hiru aste beranduago burutu ziren 1933ko Hauteskunde Orokorrak. Abertzaleek arrakasta itzela lortu zuten Euskal Herri osoan eta bereziki Araban; ezkerreko alderdien sakabanaketaren aurrean, Landaburu jeltzaleak diputatu postua eskuratu baitzuen Oriolen atzetik. Legutianon abertzaleek emaitza bikaina lortu zuten Landaburuk 321 boto bereganatzean; Oriolek 129 lortu zituen, Susaetak 81 eta Amorós erradikalak 23.



1934 eta 1935eko gertaera politikoek ez zuten Legutianon arrasto idatzi nabarmenik utzi. Espainiako gobernu kontserbadoreak ardoaren zergan egin nahi zituen aldaketen aurkako 1934ko udalen mugimenduak ez zuten Legutianoko udalaren babesik jaso, nahiz eta abertzaleak mugimenduko aitzindariak izan sozialistekin batera. 1935ean, aldiz, Arabako karlista eta eskuintzaleak *Carta Foral Alavesa* delakoa onartzen saiatu zirenean Araba, Bizkai eta Gipuzkoatik aldentzeko asmotan, Legutianoko udala asmo honen aurka azaldu zen.

Tentsio politikoaren ondorioz hauteskunde orokorrak aurreratu egin zituzten 1936ko otsailera. Legutianoko emaitzak hauek izan ziren: Landaburuk lehen postua mantendu arren, boto galera izan zuen, 321etik 273ra jaitsita, Oriol mantendu egin zen, 129ren ordez 127 lortuta eta Frente Popularraren ordezkariak, Vigurik, lehen banatutako errepublikarrak bilduz, 108 bereganatu zituen. Arabari dagokionez Oriol izan zen irabazle eta oraingo honetan Landaburu ez zen gai izan 1933ko eserlekua mantentzeko. Bost hilabete beranduago hasi zen Gerra Zibila. Legutianok toki berezia izango zuen bertan udazkeneko hilabeteetan.

## 5. Gerra Zibilaren hasiera Legutianon

Ezaguna denez, gerraren lehenengo egunak nahaste handikoak izan ziren. Gasteiz, Iruñea eta Donostiako militarrek uztailaren erdialdera matxinatu ziren bitartean ez zen gauza bera gertatu Bilbon. Hiri honetan militarren gehiengoak bat egin zuen Errepublikaren defentsarekin. Era honetan, uztailaren 20an Gasteizi eraso egiteko militar, asalto-guardia eta milizianoz osatutako eta Vidal Munarriz teniente koronelaren aginduetara zegoen zutabea antolatu zen. Talde hau uztailaren 24an heldu zen Legutianora, bertara heldu berriak ziren tropa nazionalekin topo eginez. Tiroketa luze baten ondoren, errepublikazaleak Otxandio eta Ubidean babestu ziren eta matxinatuak Gasteizen. Hurrengo egunean burutu zen gertaerak hasi berria zen gerraren gogortasuna iragarri zuen. Hegazkin batek Otxandio bonbardatu zuen eta gutxienez 84 hildako utzi zituen; horietatik 25 baino ez ziren soldaduak eta 45 haurrak ziren. Agerian dago, beraz, helburua: biztanlego zibila beldurtuz errepublikazaleen moralaa ahultzea.

Hurrengo egunetan finkatu ziren azaroaren bukaerara arte bi aldeek okupatu zituzten posizioak. Errepublikazaleei dagokienez Garellanoko militarrek Tantaibakarreko maldetan jarri ziren, asalto-guardiak Otxandioko kanposantu inguruan eta milizianoak Motxotegiko gainean; abertzaleek, bitartean, Gorbeia gailurra hartu zuten. Frankistak, aldiz, 24an sartu ziren berriro Legutianon eta bertan 600 lagun inguruko guarnizioa utzi zuten. Matxinatuek egindako lanen artean, herria gotortzea, udala desegin eta gestora bat izendatzea, batzokiaren itxiera eta zenbait lagun atxilotzea edota urruntzea ditugu. Ondorengo egunetan Gopegi, Murua eta Orduña okupatu zituzten Frankoren aldekoek. Edozein kasutan, alde batekoek, zein bestekoek, ez zuten soldadu nahiko fronte jarraitu bati eusteko, eta herri eta tontor garrantzitsuenen defentsa prestatzeari ekin zioten. Borrokaren gunerik garrantzitsuenak egun haietan inguru honetatik urruti zeuden, Madril aldean alde batetik, eta Gipuzkoako kostaldean, bestetik.

Legutianoko ingurua, bereziki Nafarrate eta Elosu herrixkak, baita Gorbeia maldak eta Elgeako mendilerroa ere, pasabide garrantzitsuak izan ziren gerraren



aurreneko hilabeteetan bi norabideetan, Gasteizko errepublikazaleak Bizkaira ihes egiteko eta lurralde honetako matxinatuen aldekoek eskualde lasaiagora heltzeko asmoz. Nafarrateko apaizak, Txomin Jakakortexarenak, kontatzen duenez, ugari izan ziren toki hauek aukeratu zituztenak aldaketa burutzeko eta berak batzuei zein besteei laguntzen zien. Trafiko hori geldiarazteko asmoz, matxinatuak herririk herri ibiltzen ziren patruilak eratu zituzten. Jakakortexarena bera atxilotu eta Gasteizera eraman zuten eta ia-ia afusilatu egin zuten. Herrira itzulita, bertako beste zenbait abertzaleren moduan Bizkaia aldera pasatu zen eta batzuk Araba batailoi jeltzaleko kide bihurtu ziren bitartean, Jakakortexarena Euzko Gudarosteko kapilau bilakatu zen.

Geldiune baten ostean, 1936ko azaroaren 30ean hasi zen Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilaren garaian gauzatu zuen tamaina handiko erasoaldi bakarra: Legutiano izan zen aukeratutako ofentsibaren gunea. Ahaleginaren porrotak eta honen neurri eta arrazoei gerraren ibilbidean eragin nabarmenak edukitzeaz gain, ilundu egin zuten egun haietako gertakizunen kontakizuna.

## Bibliografia

- Altabella, P. (1949): *El catolicismo de los nacionalistas vascos*, Editorial Nacional, Madril.
- Corcuera, J. (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Siglo XXI, Madril.
- Elorza, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937*, Haranburu, Donostia.
- Fusi, J. P. (1984): *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*. Alianza, Madril.
- Granja, J. L. de la (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, CIS, Madril.
- , (1995): *El nacionalismo vasco: un siglo de Historia*, Tecnos, Madrid.
- Jakakortexarena, T. (1990): *Bizitzan bi goiasmo*, Kardaberaz, Tolosa.
- Martinez Esparza, J.(1949): “El sitio de Villarreal de Alava”, *Ejército. Revista ilustrada de las armas y servicios*, 111.
- Mees, L. (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*. Fundación Sabino Arana, Bilbao.
- Narbona Hernani, A. E. (1999): *Elecciones municipales de 1931 y proclamación de la República en Villarreal*, argitaratu gabeko eskola-lana, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- Pablo, S. de (1988): *El nacionalismo vasco en Alava (1907-1936)*, Ekin, Bilbao.
- , (1991): *El nacionalismo vasco en la posguerra. Alava 1939-1955*, Fundación Sabino Arana, Bilbao.
- Pablo, S. de, Arg., (1995): *Los nacionalistas. Historia del nacionalismo vasco. 1876-1960*, Fundación Sancho El Sabio, Gasteiz.
- Pablo, S. de, Mees, L. eta Rodriguez Ranz, J. A. (1999): *El Péndulo patriótico*, Crítica, Bartzelona.
- Ugalde, M. (1993): *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936*, Universidad del País Vasco, Bilbao.